

## Ipuingiro Andoainen

**Andoainen 24-06-26.**-Ipuinek umeen barrua elikatzen dute, irudien bidez munduaren, bizitzaren, beren buruaren berri ematen diete. Ipuin hori irakurri beharrean, kontatzen diegunean, istorioa bere barruan birsortzeko aukera ematen diegu, alegia, irudia sortzeko. Hizkuntzaren transmisioan ere berebiziko garrantzia du ipuinak entzuteak, bizitzan baliatuko duten iruditeriari atxikitua joango baita hizkuntza bat, euskara, gure kasuan. Baina helduoi ere gustatzen zaigu ipuinak eta bizipenak entzutea, plazerraz hartzen ditugu eta, gure esentziarekin konektatzen eta besteen azalean sentiarazten laguntzen gaituzte.

Helburu horrekin, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Liburutegiak hiru kontalari ekarri genituen iazko udan gure herriko hiru leku ezberdinetara. Ikusita nolako harrera ona izan zuen esperientziak, aurten izena jarri diogu ekimenari, IPUINGIRO, eta herriko beste hiru txokootan eskainiko dugu ikuskizun bana: **Etxeberrieta plazan, Bazkardo auzoko frontoian eta Plaza Morean.**

### FAMILIENTZAKO SAIOAK:

UZTAILAK 2, asteartea, 18:30, Etxeberrieta plaza

AMAIA ELIZAGOIEN + IRATI CELESTINO:

**“Ameli eta xirrikituak jostunak”** ipuin kontalari musikatua.

(3 urtetik gora)

UZTAILAK 9, asteartea, 18:30, Bazkardo auzoko frontoia

ODEI ARREGI: **“Ganbarako ipuinak”**

(5 urtetik gora)

### HELDUENTZAKO SAIOA:

UZTAILAK 16, asteartea, 20:00, Plaza Morea

ASISKO URMENETA: **“Gora euskal herrietsak”**